

diak ez ezik olerkiak ere badatoz frantsesez zein alemanez idatziak.

Egileak bere sorketazko laberintoan sartzen gaitu. Hortarako akelarrez baliatuko zaigu eta Zugarramurdira eroanaz honako aitorkuntzaz bukatu:

*Gure munduan lanhoa dago
Gure buruan ezpaia
Gure bidea jakin nahi dugu
Gure argia bilhatu.*

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Sua ez da hiltzen*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Hemen dator 4. erhaztuna, lehengo jarraipenez. Aintzina Eskoziaren kondairan hasia eta oraingo Eta-ren prolemetara arte, egileak hontaz ere zerbaitxo baino gehiago dakianez. Azpijanak, faltsiak, ausardiak, balentriak, beldurrak, denetarik bada eleberriaren kondairan, gizonen egungo kezkak, ikuspegiak, pentsaerak eta sentierak hor biltzen dituan ez. Bai, mitoz, mistikaz..., era guziok saltsa erotikoaz nahasian.

Nork uka lezaioke Federikori fikzio gaietarako duen doaina, ekarria eta ahalmena?

Ageri anitz eskainiz eta himno majikoak kantatuz emango dio akabera. Bertan erabiltzen dituen pertsonaiak eta gaiak, izenez aldatuak edo itxuraz behinikpehin, batzutan oso eza-gunak eta oso etxeakoak egiten zaizkigu frankismoaren kontrako borroketan. Hortaz, Federiko berak, esatekorik bazuen eta zati handi bat hor irauli digu fikziozko eleberriaren bidez.

Bere idazkera populuagandik urruntzen denez, eta guk helderarik eta sumerrerarik jakin ez, maiz edo maizegi joan beharra dugu lauretatik lehen liburua denera «Kultur lexien hiztegiaren» bila edo liburu bakoitzari eraskinez jarri dion

«Hitz Apollinikoen» eta «Hitz Dionysiakoen» *rhêsiak* begiratzera (*Garaikaratiko rhêsia* eta *Elhe-gorazko rhêsia*), goi mailatik behera eta behekotik gora ibili beharra bai dugu.

Baina, azkenez, etorkiaren lau erhaztunak hor bukatzen dira, adiskiderantzazko gutunak elkarri idatziz.

Liburuotako magiak, tarteka hain liluragarria denez, irakurtzen dakien tontoena ere begiratu bat emateko tentaziora bul-tzatzen du. Inoiz harridurak aurkitzen badira ere, konzeptu filosofikorik ere anitz bada.

Etorkian, europarron kultur hariak iturri batera garamatza. Egia da oraindik Babel inork ez duela erreinutzat jarri; baina, hala ere, *thauma* bere kolkoan sentituko du. *Thopeia* gabe diot, *theama* denez, *têrutu*-arren *syllogizatu* ezinean aski *eutolmia* agertu bai dut lauron *enonta* adiaraziz edo zuoi *epideiknytu*. Bai, *enypnioz* beterik baina zeharo *baskanitu*-rik. Eta ez da guti. Baina, ez beldurtu irakurle. Txantxetan dakartzut esaldi hau. Sumeriar jatorrizko hitzok, zorionez, ez bai ditu erabiltzen holako maiztasunez. Bestela bere testua irakurgaitz bilakatuko zen. Aldiz, erabiltzen duen eran, entretenigarri.

Etorkia Eskoziako harpe batean jarri zuen, hortik dator *harpaktikoa*. Hori harpa jotzea. Baina, lehen ere hango *pikto* zirelakoekin konparaketak eginak dira. Ikus, «La langue des Pictes» (*Boletín R. S. V. Amigos del País*, XXIV, 1968, 281-321 orr.). Lan haren hutsa, latinetikako fonemari, letra soilak izanik, batzutan silaben balioa ematean eta urrengo hitzarena ere bai, komeni zitzaion erara, erabiltzetik zetorren. Beraz, irakurle, fikziozko eleberri batean erabiltzen diren kontzeptuetaz ez harritu.

Gure literaturgintzan saio berri bat da eta oso interesgarria iduritzen zaigu fikzioaren azken mugetara ere hortik joan gindezkealako. Tarteka jartzen dituen poesiak, zer esanik ere ez, oso ederrak eta pentsarazgarriak dira.

Liburuok, 20,5 x 14 zentimetro neurritz ehun eta hirurogeitik berrehun orrialdera dituzte. Harritzekoa da F. Krutwig-ek idatzi duen guzia.

J. S. M.